


# Bakea gudan

Unamuno, historia eta karlismoa





**Joxe Azurmendi Otaegi** | (Zegama, 1941).  
Euskal idazlea, filosofoa eta irakaslea da. 1960ko hamarkadan *Jakin* aldizkariaren erredakzio taldean sartu zen. 1971n *Hitz berdeak* poema liburua eta *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* saiakera argitaratu zituen. 1984an Jose Maria Arizmendarretari buruzko tesia irakurri zuen, *El hombre cooperativo* izenburuarekin argitaratu zutena. Pentsalari emankorra, besteak beste, lan hauek argitaratu ditu: *Arana Goiriren pentsamendu politikoa* (1979), *Espainolak eta euskaldunak* (1992), *Demokratak eta biolentoak* (1997), *Oraingo gazte eroak* (1998), *Euskal Herria krisian* (1999) eta *Azken egunak Gandiagarekin* (2009).

Joxe Azurmendi

# Bakea gudan

Unamuno, historia  
eta karlismoa

Hitzaurrea

**Joseba Sarrionandia**



LEHENENGO EDIZIOA  
Tafalla, 2012ko apirila

© Txalapartak EDIZIO HONENA  
© Joxe Azurmendik OBRARENA

Editorial Txalaparta e.m.l.  
San Isidro 35-1A  
78. Posta kutxa  
31300 Tafalla NAFARROA  
Tel. 948 70 39 34  
Fax 948 70 40 72  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

ISBN  
978-84-15313-19-9  
LEGE GORDAILUA  
NA. 809-2012

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Esteban Montorio

(Azala egiteko Heraclio  
Fournierrek 1930ean  
Gasteizen inprimatu zuen  
«CAMPAÑA DE CARLOS V.  
INFANTERÍA DE NAVARRA»  
irudi orria erabili da.)

MAKETAZIOA  
Monti

INPRIMAKETA  
Graficas Lizarra  
Tafallako errepeidea 1. Km.  
31132 Villatuerta - Nafarroa

## HITZAURREA

MIGUEL UNAMUNOREN GERRA ETA BAKEA

### I

MIGUEL UNAMUNO LOTSAGABEA IZAN ZELA pentsa daiteke, beharbada, euskal nazionalisten artean eragin handia zuela idatzi zionean 1917ko ekainaren 20an Alfonso Reyesi:

«he influido en el nacionalismo, en cuyas filas se me respeta y aún algo más. Lo más de su bagaje ideológico se lo dí yo a Sabino, y mi conferencia sobre la agonía del vascuence fué capital».

Lotsarik gabe, baina ez arrazoirik gabe. Unamuno, xx. mendearen hasierako euskal nazionalismoan eragilea izan zen. *Ad contrario*, batez ere, behin eta berriz arbuia zuelako euskal nazionalismoa. Euskararen modernizazioaren kontra 1901ean Bilboko hitzaldian eta beste askotan esan zituenak esanda, behartu egin zituen euskaldunak apologisten autokonplazentzia utzi eta asko zaz ere benetakoago eta argiago jardutera. Euskal

nazionalismoaren aurkari zorrotza izanda behartu zituen euskal nazionalistak umekeriak utzi eta proposamen helduagoak aurkeztera.

Euskal Filologia modernoak badu nahikoa Unamunoren doktore-tesitik, eta euskaldunen nazio proiektuak nahikoa zor dio Unamunori, haren ondoezari eta bizitzaren zentzu tragikoari bada ere. Unamuno oso presente egon zen gerraosteko abertzaletasunean. Euskal literaturan ahaztezina da *Unamuno ta Abendats* saioa, 1958an argitaratu zena erdi ezkutuan, euskal saiakeragintzan leku berezia duena, eta bitxia da leitzea Salvatore Mitxelena Unamunoren filosofiatik euskararen defentsa deduzitzen eta, Unamuno bera baino paradoxazaleago, nori eta Unamunori berari esaten:

«Zeure filosofiak aldezten gaitu eta kondentzen zaitu!».

Txabi Etxebarrietak utzi zituen paperak leitu dituenak badaki unamunozalea zela, eta Txillardegiren *Huntaz eta hartaz* irakurri duenak ere badaki Txillardegi unamunozalea izan zela, kritikoa, existentzialista, kezkarazlea, eragilea.

Joxe Azurmendi ere unamunozalea da, Unamunoren irakurlea eta kritikoa den bezainbatean.

## II

JOXE AZURMENDIREN OBRA zerrendatzen ere zaila da honezkero. Hizkuntzaz, etniaz eta marxismoaz hasi zen argitaratzen 1971 bueltan, erdi klandestinoki oraindik. Errealismo sozialistaz eta kultura proletarioaz idatzi zuen gero hainbat liburu, gizakiaren animaltasunaz eta natura/kultura bikoiztasunaz, euskaldunen eta espainolen arteko liskarrez, eta modernitatearen eta teknologiaren inguruko gaiei buruz.

Ideien bilakaera orok orra ik ertzeaz g ain, hainbat autore ere arakatu ditu modu zehatzean: Orixe irakurle berrientzak oa, Jon Miranderen ideologia, Jose Maria Arizmendiarrietaren kooperatibismoa, Nemesio Etxaniz eta 6ok o hamarkadako kultura giroa, Carlos Santamariaren pentsamendua, Etienne Salaberryrena, heriotzaren aurreko Bitoriano Gandiag a. Topikoen istingatik errekuperatu eta ondo esplikatu ditu, pertsonaiak

berak egingo luk een baino hobeto , agian, elementu eta baliabide intelektual gehiago dituelako hark baino eta, batez ere, denboraren abantaila. Baina sobreinterpretaziorik gabe, pertsonaiak berak ametituko lukeen moduan eta ez, hain ohikoak denez k omentarista askoren aldetik, haren ideiak desitxuratuz.

Miguel de Unamuno beste saiakera batean ere tratatzen du Joxe Azurmendik: *Espainiaren arimaz*. Liburu hori trilogia baten hirugarren parte da eta, Wilhem von Humboldten ideiak, *Volksgeist* edo 'herri gogoa' kontzeptuaren bilakaera aztertu ondoren, *Espainiaren arimaz* liburuan, nazionalismo espainolaren oinarri ideologikoak aurkezten ditu, Menéndez Pelayo, José Ortega y Gasset, Ramón Menéndez Pidal eta halako beste batzuen artean Unamunoren testuak azalduz.

Oraingo beste entsegu honetan, Joxe Azurmendik *Paz en la guerra* nobelaren filosofia aztertuko du. Joxe Azurmendiren araketa filosofikoa bidezkoa da, nobela hori filosofia politiko bat delako funtsean. *Paz en la guerra* euskal herri zaharraren akaberaren filosofia da. Eta Espainiaren eraikuntzaren filosofia ere bai.



### III

*PAZ EN LA GUERRA* LIBURUA ez da hori bakarrik, jakina. Nobela on bat dela esan behar da lehenengo eta behin, denboraren froga pasatu duena, gainera, idatzi eta ehun eta piko urte geroago ere gustura irakurtzen delako. Testimoniala eta zer pentsatu ematen duena da, errealista eta lirikoa. Nobela autobiografikoa eta oroiminezkoa da, ume-denborarekin batera galduko den gizartearen lekukotasuna. Nobela historikoa da, eta sarritan azpimarratu da Unamunok egin zuen dokumentazio lana gertaera historikoak ahalik eta zehatzen azaltzeko. Azken Karlistaldia 1870ean hasi zen, eta 1872an porrot egin zuen. Gogor berpiztu zen 1873 hasieran, eta 1876 arte iraun zuen. Edozein historia-liburutan baino hobeto argitzen da sasoi historiko hori Unamunoren eleberri horretan.

Nobela politikoa ere bada. Baina nobela politiko gisa, ez da alderdikoia, eta honek benetan

politikoagoa egiten du seguru asko. Unamunok pertsonaia bat marraztu zuen testuan bere burua islatzeko, *Pachico Zabalbide*, baina autorearen beste pertsonaia askotan dago, enpatiaz. Bilboko gizarte zatitua zati bakoitzetik azaltzen ahalegintzen da. Ignacio Iturriondok, esate baterako, autorearen ulermen osoa du alde, eta sentimena ere bai. Hainbeste non, filokarlistatzat ere hartu izan den nobela hori.

Pertsonaiekiko eta errepresentatzen dutenarekiko enpatia hori literarioa baino gehiago da, heldubada. Irakurketa politikoa eginez, esan daiteke autorearen 'alderdikoa' izateaz gain, liberala izateaz gain eman dezagun, 'aldenetakoa' bihurtu dela nobelagintza horretan. Enpatia ahalegin eta gizartearen ulermen saio eredu-garria gaur eguneko irakurlearentzat ere, duela ehun urte bezala oraindik ere berdintsu gabiltzanean, balio desberdinekin bizitzeko arrazionalitate eredu kultural eta politiko berrien bila.

Unamunok nobela horretan espainiar nazionalismoaren filosofia bat esplikatzen nahi izan zuen. Euskaldunen integrazioarena espainiar nazionalismoan. Euskaldunena historiarik gabeko herria zen, Friedrich Engelsek ere esan zuten. Historiara, nazioen kontzertura, euskaldunak –Unamunoren ustez– espainol edo frantses gisa agertu behar ziren derrigorrez. Horretarako ziren gerrak, aldaketa hori ahalbidetzeko. Gerra

sakoneko bakearen ondoren, gerra horrek eka-  
rriko zuen bizimodu berriarekin batera bakea.  
Bizkaiko gizartearen modernizazioaren eta espai-  
nolizazioaren kondairatzat zuen Unamunok *Paz  
en la guerra*.

Joxe Azurmendiren irakurketa oso argigarria  
da, nobelaren oinarrian dauden XIX. mendeko  
filosofiaren iturriak eta eskema intelektualak,  
orduan nagusitu zen axioma eboluzionista-positi-  
bista eta, batez ere, Herbert Spencerren biolo-  
gismoa, esplikatzen baititu.

#### IV

*PAZ EN LA GUERRA* NOBELAREN oinarrian, literatura-  
ren alorretik, baina hau ere filosofia da, Lev Tolstoi  
ere aipa daiteke. Lev Tolstoik *Gerra eta bakea*  
1869an argitaratu zuen lehenengoz. Nobelaren  
titulutzat Pierre Joseph Proudhonen *La guerre et*  
*la paix* saiakerarena hartu zuen, 1861ean argita-  
ratua hura, zeinetan gerra probidentzia dibino-  
aren ondoriotzat hartzen zen, nolabait. Tolstoik  
ezin zion gerraren errua Jainkoari atxiki, eta  
frantziarraren probidentzialismoa, *Gerra eta*  
*bakea* nobelan, organizismoa eta biologismoa da.

Zeharo bereizten da Lev Tolstoiren nobelan  
natura eta nolabaiteko kultura artifizio samarra.  
Alde batetik, gorputz organikoa dago, lurrarekin  
loturik, sustraiekin, bizi-senarekin. Eta, beste  
aldetik, arrazoia eta historia, artifizio samarrak  
betiere. Ilustrazioa eta modernizazioa, trena eta

nazio modernoa, hutsalak gerta zitezkeen izadiaren eta gizakiaren bizitzaren aldean.

Gerra eta bakea nobelan bada halako pasarte adierazgarri bat. Austerlitzeko bataila-zelaiian zauriturik datzala, Andrei Bolkonski printzeak Napoleon Bonaparte ikusten du, hurbiltzen ari dela, hantxe bertan dago eta, lurretik gora begira, zeruaren kontra ikusten du:

«Bonaparte izaki txikia eta garrantzi gabekoa iruditzen zitzaion bere gogoan gertatzen ari zena-  
ren eta hodeiak pasatzen zireneko zeru sabai infinituaren aldean».

Napoleon Bonaparteren armada frantsesak pasatu egingo dira, haizetea heldu eta joaten den bezala, eta Errusiako zelaiak hor geratuko dira zeru sabai infinituaren azpian. Espiritu naturalaren eta arrazoi artifzialaren arteko gerra da. Alde batetik, lurra dago, eta komunitate naturalia roussonianoa, herri lurrari lotua; eta bestetik, Frantziatik heldutako ideiak, armadak eta gainerakoak. Indartsuenak irabazi behar balu ere, askozaz indartsuagoa da Napoleon baino, esate baterako, elurtea. Napoleonen hazia ezin izango da sekula Errusiako zoruan ernaldu eta egokitu. Hazi hori, Frantziako Iraultzak eta Napoleon Bonapartek asmatutako historia artifzial hori, berez ustelduko da Errusiako lurrian.

Bestelakoa da Unamunoren ondorioa Euskal Herriarekiko, Herbert Spencerren biologismoaren eskutik. Ahaltsuenek irabazten dute bizitzaren borrokan, eta besteak desagertu dira. Irabaziko du beharbada Errusiak, baina ez da borrokatik bizirik aterako Euskal Herririk, ez Hungaria ez Txetxeniarik, ez Maroko ez Txekiarik:

«Un sentimiento romántico, es decir, anticultural, podrá llevarnos a simpatizar con Irlanda, el Transvaal, Polonia; pero la causa de la civilización, del legado humano universal, está con Inglaterra en los dos primeros casos, con Alemania en el tercero».

Herri txikiek, indargeek, garaituek ez dute etorkizunik. Nazio-estatu handi garaileek irentsiko dituzte ezinbestean. Hala desagertu behar da euskara eta euskal komunitate zaharra, erre-medorik gabe: euskaldunek beste hizkuntza modernoago bat eginez izanen dute Arrazoia eta Espainiako eta Frantziako estatu-erakundeak integratuz eginen dute Historia.

Lev Tolstoik badu beste nobela txiki bat, idatzi zuen azkena omen dena, gaztetan Txetxenia aldean militar ibili zeneko esperientziaz osatua: *Hadzi Murat*. Errusiarren kontrako erresistentziaren buruetako bat da Hadzi Murat, noiz eta 1851n. Gaur egun bezala baitzebiltzan errusiarrek orduan ere Txetxenia eta Dagestan aldean.

Eta nobela horren edizio batzuetan bada metafora estiloko sarrera bat. Kanpoan buelta bat emanda, narratzailea landan zehar itzultzen ari da. Lore batzuk han-hemenka biltzea otu zaio, etxerako. Udako eguna da, eta koloreetako lore sorta polita osatu du jadanik, belardian kardabera ikusi duenean.

Kardabera loratu eder hori ere hartu nahi du. Bi hatzez zurtoinetik heldu eta ez da lurretik irten. Zurtoina bihurturik ere ez du kardabera ebaki ahal izan. Lurrari tinko loturik dago eta azkarra da, gorantz gogor tiratu du, baina alferrik. Kardabera lurretik erauztea lortu duenerako, eskuak mindurik eta odoldurik ditu, eta kardabera bera ere zapuzturik dago. Halako gertaera batek ekarri omen zion gogora Lev Tolstoi zaharrari gaztetan errusiar soldadu gisa Txetxeniako mendietan ezagututakoa.

Ez zuen kardaberak amore eman bere burua hondatu gabe eta hartzailearena ondo mindu gabe. Kardabera hori bezalakoa izan zen errusiarrentzat eta Errusiarentzat Hadzi Murat eta Txetxenia osoa.

EUSKAL NAZIONALISMOA oximoron moduko zerbait zen Unamunorentzat. Nazioa eta historia estatuarenak eta hitz modernoak, nahitaez, erdararenak zirela uste zuen. Euskal nazionalismo jeltzalea hiru lau urteko umea zen *Paz en la guerra* nobela idatzi zenean, eta halakoxea iruditu zitzaion beti Salamancako Unibertsitateko katedradunari, polita eta maitagarria une batzuetan, baina aldrebeskeria eta ernetzeko motiboa gehienetan. Umekeria moduko zerbait, oro har.

Hala ere, nobelaren amaieran, arrakalatzat har daitekeen zirrikitu txiki bat uzten zien nazio bihurtu nahi zuten herriei:

«Por debajo de las nacionalidades políticas simbolizadas en banderas y glorificadas en triunfos militares, obra el impluso al disloque de ellas en razas y pueblos más de antiguo fundidos,



antehistóricos, encarnados en lenguajes diversos y vivificados en la íntima comunión privativa de costumbres cotidianas peculiares...».

Nazionalista espainola izan zen Unamuno, hizkuntzan oinarrituriko nazionalismo hispanikoa-ren abanderatua, gainera. Euskaldun eta espainol sentitzen zen, kontraesan handirik gabe, arazoekin. Baina arazoak, Estatuak eta denborak ia berez konponduko zituztela uste zuen. Itzelezko fedea izan zion Estatuaren ideiarri, eta nazionalismo espainol esentzialistena bultzatu zuen, gerrazaleena ere bai momentu larri batzuetan.

Baina euskal kardabera ere ez zen lurretik ateratzen hain erraza suertatuko. Eta ez zuen nazio-arazoa konpondu ahal izan Unamunok, ahalegindu zen arren hil arte, ondoko espainol eta euskaldun askok ere konpondu ezin izan dugun bezala.

Joxe Azurmendiren hipotesia da Unamunok, sasoiaren semea izanda ere, euskal nazio-arazoa konpontzeko baliagarriak izan daitezkeen ideia batzuk garatu zituela, ideia kritiko, existentzialista, kezkarazle batzuk, eta, hala ere, horiek ez zizkiola euskal arazoari aplikatu. Salvatore Mitxelenaren ideia nagusia ere horixe zen, Unamunoren beraren filosofiak euskararen defentsa eta euskal herritartasunaren ideia sostenga zitzakeela: pertsonaren edo herriaren eginbidea norbera izatea

dela sostengatzen baitzuen batez ere Unamunok, ez 'beste pertsona' edo 'beste herria', eta hizkuntzak egiten zuela herria. Baina hizkuntzaren modernizazioaren inguruko ideiak ere ez zizkion euskarari aplikatu nahi izan. Alde horretatik, balio desberdinekin bizitzeko arrazionalitate kultural eta politiko baten bila dabilenak, Unamunok egiten duen euskal nazioaren eta euskararen ukazioaren aurrean, Salvatore Mitxelenak, Jose Luis Alvarez Enparantzak, Txabi Etxebarrietak edo Joxe Azurmendik bezala esan dezake: filosofia horrek beste zerbait eskatzen du.

Unamunok aterata zegoela uste izan zuen gerrate karlisten ondoren, kardabera esan nahi dut. Oso idealizatu zuten 1873-76ko gerra zibila, eta *Paz en la guerra* bera idealizazio horren emaitza da, eta nobelaren ondoren are gehiago idealizatu zuten modernitatearen erditze lez. Derrota haren bidez uste zuen sartzen zirela euskaldunak arrazionalitatera eta historiara. Umeei kontzientzia zibila sortu zitzaie esaten zuen, halaxe, orokorrean.

Gerra bera ere idealizatu zuten. Azken Karlistalditik, borroka basati odoltsuaren oroitzapen amestu bezalako bat geratu zitzaion gogoan, eta bakearen eta gerraren paradoxa asmatu zuten. Gerra dagoela bakearen funtsean eta bakea dagoela gerraren funtsean, eta hala bilakatzen direla gauzak gerra zibilaren bidez.

Nobelaren antzera, *Paz en la guerra* deitu zen artikulu batean ere idatzi zuen, 1933ko apirilaren 25eko *Ahora* egunkarian:

«he podido sentir la paz como fundamento de la guerra y la guerra como fundamento de la paz».

Gerra hori eta bake hori bere baitan zeramatzala zioen. Gerra zibilaren apologia egin zuen behin eta berriro, borroka egin behar zela, elkarrekin topo eginez, batak bestearen arrazoiak konprenituz, arazoak eztabaidatuz eta gaindituz. Baina Unamunok Johanes Etxeberri Sarakoak *Eskuararen Hatsapenak* liburuan proklamatzeko gerra eder miragarria izaten zuen gogoan, ez errealitateak gerratzat ekarri ohi duen gerra inzibil, odoltsu, gupidagabea.

Ez zitzaion Unamunori gustatzen egia erdialdean bilatzeko ohitura, bazterrekoak eliminatuz, *via remotiois*. Estremoak izaten dira sarritan bata bestea ukatuz bizitzaren erritmoa markatzen dutenak. Erdibidean, maiz, egien itzal hotz eta lausoak baizik ez dira azaltzen. Hobetzat zuen kontrarioen argitze aldizkakoa, aurkarien dialektika, eta helduko zen bizikidetzaren eta gatazkaren ondorioz erdigune edo soluzioa.

Baina horretarako, gerra zibila ez dadin gerra militarra eta inzibila bihurtu, 'alderdiko' jendea ezik 'aldenetako' jendea behar zen, Unamunoren ustez, besteekiko enpatiarekin, 'aldeosokoa'. Ez

fanatikoak, ez erresuminduak, ez dogmatikoak, baizik eta besteen iritziak ere konprenitzeko gauza zen jendea, eta gogor borrokatzeko, baina bakearen oinarri den gerra zibil ekarkorrean, hau da, gerra zibilizatuaren oinarri den bake emankorrean.

MANUEL GARCÍA *Los pseudónimos de Miguel de Unamuno* argitaratu zuen 1947an Liverpooleko Unibertsitateko *Bulletin of Hispanic Studies* aldizkarian eta, beste batzuen artean, *Manu Ausari* izenordea aipatzen du artikulu horretan, lehenengo izena atzekoz aurrera irakur daitekeela esanez, anagrama partzial gisa, baina aitortuz ez dakiela Ausari interpretatzen. ‘Hauts’ edo ‘ausiki’ hitzekin esplikatu da gero *Ausari* hori. Orduko bizkaieraz, a *usaria*, *auskaria*, ‘borrokaria’ edo ‘borrokazalea’ zen.

Eta ez zen auskari edo borrokazale makala Unamuno! Borrokan eman zuen bizitza osoa. Gerra zibila predikatzen, umetan idealizatu zuenaren ondoren, gerra inzibil bihurtu zitzaizkion arren ezagutu zituen gehienak. Azkeneko gerra ere, bakea ekartzeko txalotu zuena, laster inzibilizatuko zitzaion gero.

Heriotzaren alde ere hasi zen José Millán-Astray, tolesdurarik gabe, zuzenean:

«¡Cataluña y el País Vasco, el País Vasco y Cataluña, son dos cánceres en el cuerpo de la nación! El fascismo, remedio de España, viene a exterminarlos, cortando en la carne viva y sana como un frío bisturí!».

Eta auskari hasi behar izan zuen orduan Unamunok, Kataluniaren eta Euskal Herriaren alde berrero, gerra zibilaren ideia hondatzera zetozen gerrariaren aurka, heriotzaren kontra:

«Venceréis, porque tenéis sobrada fuerza bruta. Pero no convenceréis, porque para convencer hay que persuadir. Y para persuadir necesitaréis algo que os falta...».

Bortxa sobera izanda ere, zerbait falta zutelako. 1936ko azken egunean hil zen lagunekin solasean ari zela. Dena erdi aldrebes irteten zitzaion Unamunori: heroi falangista gisa enteratu zuten. Antonio Machadok lerro batzuk idatzituen gero berria jakitean:

«Señalemos hoy que Unamuno ha muerto repentinamente, como el que muere en la guerra. ¿Contra quién? Quizá contra sí mismo».

Unamuno gerran hiltzen denaren moduan hiltzen. Noren kontrako gatazkan? Bere buruaren kontrakoan, batez ere.

JOSEBA SARRIONANDIA

# Bakea gudan

## Unamuno, historia eta karlismoa

- (1) Esaldi bakar batean bil daiteke esateko daukadan dena: Unamunok XIX. mendeko ikuspegiarekin ikusi du eta (b)aztertu du euskal arazoa.
- (2) Nire objekzio edo kritika nagusia beste esaldi batean bilduko dut: XIX. mendeko filosofia hura puskatu eta gainditu dutenetan, inportanteenetako bat Unamuno bera izan da; baina berak ez dio aplikatu ikuspegi edo filosofia berriarekiko arazoari.
- (3) Hori egin duena –eta Unamunorekin berarekin hein batean– gerraondoko euskal pentsamendua izan da.



AURREOHARTXO BI, HASTEKO.

Gaztea nintzenean –aspaldi samar, beraz–, estrukturalismoa modan zegoen. Levi-Straussek, Antropologia Estrukturalaren Sarrerako kapituluak, historiaren eta etnologiaren arteko erlazioak eztabaidatzen ditu. Historiak herrien bizitza aurrerapen terminotan kontsideratzen du: Europako herriak aurrerratuak dira. Etnologiak herri «primitiboak» iraupen terminotan ikertzen ditu. Hau da, historiak etapak dauzka: herri batzuek etapa horietan egiten dute aurrera; beste batzuek hasierako etapa primitiboetan iraun bakarrik. Aurrera egiten duten herriak historiaren objektu dira; irauten dutenak, etnologiaren objektu.

Ikuspegi eboluzionista-positibista hau, Levi-Strauss baino lehen ere eta berdin gero, jende askok eta era askotan kritikatu du, eta, teoriarik, «gainditua»

dago. Praktikan, ez hainbeste. Gu denok historia progresibo linealaren irudi horretan izan gara eskolatuak eta ohituak. Hau da, dotrinan ikasten genuen Jainkoaren historia sakratu edo teologikoan ez ezik –zuzen-zuzen Adanekin hasi eta Azken Judizioraino doan historian–, baita historia politiko-zibilean ere, gure ikusmoldean historia guztia bat da (munduko historia, gizadiaren historia, herri eta tribu guztiena), eta helburu batera progresoan doa dena. Historia bakarra dago guztientzat (kulturak, aldiz, asko omen daude! Horiekin guztiekin nekezago egiten da zaku bat). Hasieran, Mesopotamian-edo, kultura handi batzuk pizten dira ezerezean: asiar inperioak. Hurrena, Egipto agertzen da, faraoiak, piramideak: Mesopotamia hil, eta desagertu egiten da liburuan. Egiptori Grezia eder zoragarriaren kapituluak segitzen dio, denok maite dugun kapituluak. Orria pasatu, eta Erroma handia, Mediterranea eta Europa osoa Inperio batean biltzen dituen potentzia militarra: Grezia desagertu egiten da historiatik. Ondorenean, barbaroek betetzen dute Europa (progresoaren gezia ez da garbi ikusten nondik nora doan!). Gero, berriro, nahasialdi hori gainditu, eta Errenazimentua: Italia, Greziako eta Erromako artez betea. Geroxeago, Espainia eta, han, eguzkia sartzten ez den Inperioa mundu zabalean, Frantzia-

ko Errege Eguzkia, Ingalaterra inperiala..., behetik gora beti, txandaka, lerro xuxen-xuxenean.

Eskema horretan, non gelditzen dira Yuktango maiak edo Chiapaseko indiarak? Ez dira inon gelditzen. Lekurik ez dago historian horientzat. (Jakina, horiek ere, gero, Jainkoaren haurrak dira, eta nolabait historiak, hau da, gure kontzientzia txarrak, haiek errekuperatu behar ditu! Eta atzeko atetik errekuperatzen ditugu: espainolak Mexikora joan ziren, eta, han, holako eta halako kultura eta jendeak aurkitu zituzten, etab. Herri horiek ez dute beren historiarik; baina, espainolen historiaren bitartez, berreskuratu egiten ditugu historiarako eta gure testuetan txoko bat aurkitzen ahal dute). Hala-koak «historia gabeko herriak» edo «bazterreko historiako herriak» dira, XIX. mendean esan ohi zenez (Engelsek espresuki «historia gabeko herrien» artean euskaldunak aipatzen ditu). Hori zen XIX. mendeko historiaren ikuspegia: historia gizadiaren prozesio bat zen, helburu baterantz zihoana: klase gabeko gizartea, gizaki aske eta guztiz desalienatua, edo beste nolana hiko «Azken Judizioa», gauzak betiko bere ordena zuzenean jarriko zituena. Naturaren eboluzio biologikoaren ereduaren antzera, giza historia eboluzio eta progreso bat legez ikusten da etapatan, aro batek bestea gaindituz, behetik gora goz kulturaren eta perfekzioan. Eskema sinplea

da, hortaz: historia herri boteretsu handiek egiten dute (garaileek) <sup>1</sup>; herri txikiak edo ahulak, garaituak, historiaren uhol bazterrean geratzen dira. Herri handiak munduko borrokan aritu, eta aurrera egiten dute; herri txikiek, bazter-bazterrean, iraun; denbora bat iraun eta, gero, herri handiagoek irentsita, desagertu.

Kasu horri, bada! Euskal Herria, herri aurreindoeuroparren hondar bat da, Pirinioetako bazterrean orain arte iraun duena, desagertzeko bidean, Espainiak eta Frantziak irentsita. Hau da XIX. mendearen historia eta mundu-ikuskerara. Funtsean, mentalitate horrekin interesatu da –batzuetan sinpatia handiagoarekin (inspirazio erromantikoak animatzen zituen kasuetan batik bat), beste batzuetan sinpatia handirik gabe–, XIX. mendean Europan egon den Euskal Herriaren «deskubrimenduan» gutaz interesatu diren hainbat filologo, etnologo eta enparau. Unamunok ezagutu zuen Euskal Herriaren eta euskal gaien ikerketa, hain zuzen, izpiritu horretan egiten zen.

Bigarren oharra. Unamunori buruz hitz egiteko hemen banago, ez da haren espezialista naizelako. Gaztetan –beste asko bezala– Unamunozalea izan nintzelako baizik (eta, nolabait,

---

1.-Hobeto esan, Estatuak egiten dute (Botereak), ez herriek.

naizelako). Beraz, gure aspaldiko Unamunozale-  
tasun haren lekukotza pixka bat ematea dagokit.

Bestetik, Unamunok alderdi asko ditu, bai  
pertsoneiak, bai poetak eta bai pentsalariak.  
Handia, ezaguna –eta interesgarriena–, segu-  
ruenik, bere fi losofia edo pentsamendu «tragi-  
koaren» aldetik izango da Unamuno munduan.  
Baina guretzat, hain zuzen gurekiko, Euskal  
Herriarekiko eta euskararekiko, edo euskal ara-  
zoarekiko, eduki zuen jarreragatik ere da inte-  
resgarria. Eta nik, hemen, alde horixe hartuko  
dut aztergai. Baina ez bereber, euskal arazoa  
soil, haren pentsamendu fi losofikoarekin lotuta  
baizik. Izan ere, Unamunoren sentimendu per-  
tsonalek zer eragin izan duten alde batera utzita  
(katedrarako oposizioetan Azkuek irabazi zio-  
lako mindu omen zela eta halakoak aipatu ohi  
diren kontu horiek alde batera utzita, alegia),  
haren jarrerak badu zerikusirik haren fi losofia-  
rekin.

Konkretuki, *Paz en la guerra* nobelan zentra-  
tuko naiz oharrotan<sup>2</sup>; eta, konkretukiago, galde-  
ra honetantxe: zein pentsamendutatik abiatuta  
dago eginda nobela hori? *Paz en la guerra*, daki-  
zuenez, azkeneko gerra karlistari eta bereziki

---

2.- Argitalpen hau erabiliko eta aipatuko da: Unamuno, Miguel  
de: *Paz en la guerra*, Txalaparta, Tafalla, 2008. Hemen  
aurrerik liburu honetako aipamenetan orria bakarrik emango  
da, ematekotan.

Bilboko setioari buruzko nobela da. Beraz, karlismo/liberalismo gatazkaren interpretazio saio bat da. Eta, hein horretan, Euskal Herriaren eta Modernitatearen interpretazio saioa.